

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 5779

*EBAZPENA, 2019ko abenduaren 4koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria, zeinaren bidez arautzen baitira asoziazionismoa sustatzeko eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan parte hartzeko 2020ko ekitaldian emango diren dirulaguntzak.*

Emakunde eratzeko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen funtsezko helburua da emakume eta gizonen arteko berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzea da Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren eta gizartearen maila eta esparru guztietan. Emakunderen helburuak dira, beraz, sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, berdintasun hori, izatez eta zuzenbidez, bere osotasunean garatzeko dauden oztopoak kentzea eta emakumeen aurkako diskriminazio era guztiak desagerraraztea EAEn.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.3 artikuluan EAeko herri-administrazioei eskatzen zaie susta ditzatela emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduerak egiten dituzten elkarteak, eta emakumeen autonomia bultzatu eta emakumeen estatus soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzea helburu dutenak.

Bestalde, 4/2005 Legearen 15.1 artikuluan xedatzen denez, legealdi bakoitzean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du, non zenbait jarraibide eta gidalerro jasoko baitira koordinatuta eta orokorki, EAeko botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko. Ildo horretatik, Berdintasunerako VII. Planaren egiturari, hasieran, berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko arloa dago, eta lehentasunezkoak diren hiru ardatz estrategiko daude; haietako bat da, hain zuzen ere, emakumeen ahalduntzea. Hori dela eta, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen iritziz, beharrezkoa da emakumeen asoziazionismoa eta parte-hartze aktiboa babesten eta sustatzen jarraitzea; izan ere, emakumeen elkarte eta federazioek eta xede eta jardute-eremu bakarra emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna sustatzea duten fundazioek zuzenean lagundu eta eragin dezakete bi sexuen benetako berdintasunaren aldeko eraldaketa sozialean, euskal gizartean.

Horrenbestez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aurreikusita dauka irabazi-asmorik gabeko elkarte eta federazioei eta xede eta jardute-eremu bakarra emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea duten fundazioei dirulaguntzak ematea 2020ko ekitaldian, emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa sustatu eta garatzea genero-ikuspegia duten partaidetzazko prozesuen bidez. Helburua da emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren alde egitea, gizartean eta herritarren artean, honako hauek aldezteko: emakumeen garapena eta haien jardunena, ahalduntzearena, parte-hartze soziopolitikoarena eta elkarte-sarearena. Helburua da pixkanaka lortzea emakumeen eta gizonen berdintasuna; horregatik, dirulaguntzen deialdi hau arautzen da, publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-irizpideei jarraituz. Hala ere, aurreko ekitaldietan egin zen bezala, orain arte aurkeztu diren programa eta jardueren ezaugarriak ikusita, eta kontuan hartuta gero eta elkarte sortu berri gehiagok parte hartzen duela, baliabide ekonomikoak zuzentasunez banatzen ahaleginduko gara betekizunak betetzen dituzten elkarte, federazio eta fundazio guztien artean.

Bestetik, deialdi hau 2018ko urriaren 31n onartutako Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren babespean egiten da (2019ko abuztuaren 12ko ebazpenak aldatuta). Era berean, dirulaguntzetarako honako hauetan araututako araubideari lotuta dago: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluaren eta VII. tituluaren III. kapituluaren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, eta lege horren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan.

Azkenik, deialdi honi, kudeaketa bizkortzeko xedez, gastu-espeditenteen aldez aurreko izapideak egingo zaizkio, EAEko 2020ko Aurrekontu Orokorren kontura.

Horrenbestez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da irabazi-asmorik gabeko emakumeen elkarte eta federazioei eta xede eta jardute-eremu bakarra emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea duten fundazioei Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak emango dizkien dirulaguntzak arautzea. Erakundearen xede eta helburuei loturiko programa zehatzak egin beharko dituzte 2020ko ekitaldian, hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraikiz eta kreditu-mugetatik atera gabe.

##### 2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Emakundearen aurrekontuetan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira aurreko artikuluan adierazitako xedeak lortzeko diru-baliabideak. Zenbatekoa hirurehun eta hirurogeita hamasei mila (376.000) eurokoa izango da.

2.– Laguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da Euskal Autonomia Erkidegoaren 2020ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan, Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan ezarritakoaren arabera (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditenteak aurretiaz nola izapidetu arautzen da).

##### 3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Ebazpen honek araututako dirulaguntzak Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen aplikazio-eremuko irabazi-asmorik gabeko emakumeen elkarte eta federazioek eska ditzakete, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen aplikazio-eremuko fundazioek, baldin eta helburu eta jarduteko eremu bakarra emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea badute eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen badituzte, baita azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50. artikuluen 5. eta 6. paragrafoetan ere. Beharrezkoa izango da, gainera, jarduera Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan garatzea eta egoitza soziala ere Euskal Autonomia Erkidegoan edukitzea.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren organo autonomoek emandako izaera bereko laguntzei edo dirulaguntzei dagokienez itzulketa- edo zehapen-prozeduraren bat hasita badago eta oraindik izapidetzen ari bada, aipatu prozedura amaitzea ezinbestekoa izango da dirulaguntzak eman eta ordaindu ahal izateko. Laguntza ordaintzeko, halaber, beharrezkoa izango da betebeharrak ordainduta izatea.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen programak.

1.– Indarrean den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko Planaren arabera, eta Erakundearen helburuei jarraikiz, diruz lagunduko diren programak 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egin beharko dira, eta honako hauek egiteko bideratuko dira:

a) Emakumeen eskubideak aniztasunetik zabaltzea, bai eta emakume-mugimenduaren historia eta pentsaera feminista zabaltzea ere, bereziki Emakumeen Aurkako Diskriminazio Modu Guztiak Ezabatzeari Buruzko Hitzarmenaren (CEDAW) nazioarteko esparrutik.

b) Ikerketa, dibulgazioa eta/edo sentsibilizazioa emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan; emakumeen eskubideak sustatu eta defendatzea, eta emakumeen erreferenteak eta genealogiak sortzea.

c) Genero-ikuspegia duten eta ahalduntze indibidualaren, kolektiboaren eta sozialaren alde egiten duten partaidetzako prozesuak sustatzea, eta, horretarako, zenbait jarduera egitea, helburu hauek betetzeko: emakumeen egoera soziopolitikoari buruzko eztabaida sustatzea; sarean egindako lana bideratu eta sortzea, eta emakumeek kudeaketa- eta zuzendaritza-lanetan duten gaitasuna garatzea partaidetzako eta interlokuzio sozialeko espazioetan, bereziki aniztasuna aintzat hartuta.

d) Emakumeen presentzia eta protagonismoa sendotzea, eta haien partaidetza genero-ikuspegitik sustatzen duten jarduerak egitea, aniztasuna integratuz bai erabakiak hartzeko prozesu eta espazioetan, bai EAEko erakunde sozial eta politikoen kudeaketan eta zuzendaritzan.

e) Emakumeen eta haien elkarten artean esperientziak sustatu eta trukatzeko, kolektiboan eta sarean; bereziki, prozesuen logika eta metodologia aintzat hartzen dutenak.

f) Belaunaldi arteko itunak egitea emakumeen artean, eta sarean egiten duten lana sustatzea.

g) Emakume guztiek politikaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arlo guztietan parte hartzea sustatuko duten jarduerak, emakumeen elkarteak bultzatzekoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko elkarten mugimendua koordinatzekoak.

h) Gizartea emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz sentsibilizatzea eta horri buruzko informazioa ematea, eta informazio-baliabideetan eta hedabideetan emakumeen eta gizonen irudi berdintasunezkoa, askotarikoa eta estereotiporik gabea sustatzen duten ekimenak egitea.

i) Etxeko lanetan, senideak zaintzekoetan, zaintza sozialetan eta zeregin horiei dagozkien arduetan, gizonen erantzukidetasuna sustatzea, helburu hartuta era arrazionalagoan eta berdintasun handiagoz banatzea norberarentzat, aisialdirako, familiarako eta lanerako dugun denbora.

j) Berdintasunaren arloko prestakuntza, zenbait arlotan: hezkuntza, kultura, kirola, prestakuntza-enplegua, osasuna, gizarte-partaidetza, aniztasuna...

Trebetasunak ikasteko programak (eskulangintza, elektrizitatea, sukaldaritza, arotzeria, etab.), dirulaguntzak jaso ahal izateko genero-ikuspegia barnean hartu beharko dute.

2.– Erakunde bakoitzeko, programa bakarra lagunduko da diruz, eta, haren barruan, hainbat jarduera aurkeztu ahal izango dira. Aitzitik, ez dira diruz lagunduko honako hauek:

a) Aisialdirako baino ez diren jarduera-programak.

b) Beste erakunde batzuei eskainiko zaizkien zerbitzu eta ekintzak finantzatzeko programak.

c) Genero-ikuspeirik gabeko programak.

3.– Aurkeztutako eskabide baten helburua ez badator bat dirulaguntzen lerro honekin, baina organo kudeatzaileak uste badu administrazio-ebazpena eman aurreko fasean dagoen Emakunderen beste laguntza-lerro batean sar daitekeela, organo horrek erabaki dezake eskabide hori beste laguntza-lerro batean sartzea, hots, bere helburura gehien gerturatzen den laguntza-lerroan. Eskabidea aurrena jaso duen lerroaren organo kudeatzaileak eskabide hori bidaliko dio azkenean hura hartuko duen lerroa kudeatzen duen organoari, eta horren berri emango zaio erakunde eskatzaileari, jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean bidezkotzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan. Erakunde eskatzaileak epe horretan aurka egiten ez badu, lerro-aldaketa hori onartu duela ulertuko da.

5. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura eta diru-zenbatekoaren zehaztapena.

1.– Laguntzak esleitzeko, artikuluan honen 5. paragrafoan aurreikusitako norgehiagokaren prozedura erabiliko da.

Horretarako, garaiz eta behar den eran aurkeztutako eskaerak aztertuz esleituko dira laguntzak. Onartzen den aurrekontuaren % 100 finantza daiteke, 10. artikuluan zehaztutako irizpideei eta ebazpen honen 4. apartatuan ezarritako baremoei jarraikiz. Erakunde eta programa bakoitzari 12.000 euro emango zaizkio gehienez ere, eta, zenbateko horretan, programatutako jarduera guztiak sartuko dira, nahiz eta programa bakoitzaren guztizko zenbatekoa handiagoa izan kopuru hori baino.

2.– Aurreko apartatuan aipatutako aurrekontua onartzeko, besteak beste irizpide hauek hartuko dira kontuan:

– Kalkulua egiteko, gehienez ere 12.000 euroko aurrekontua hartuko da kontuan, eta, zenbateko horretan, programa bakar bateko jarduera guztiak sartuko dira, nahiz eta programa bakoitzaren guztizko zenbatekoa handiagoa izan kopuru hori baino.

– Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira funtzionamendu-gastu arruntak ez diren kostuak, jarduera egiteko beharrezkoak direnak.

– Ebazpen honetan zehaztutako araubidearen babesean, diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira zenbait funtzionamendu-gastu arrunt, baldin eta jardueraren aurrekontu banakatu eta zehaztuan azaltzen badira eta jarduera garatzearekin zuzeneko lotura badute, hala nola materialak, inprimatze-lana, zabalkundea, laguntza teknikoa, joan-etorriak, aretoen alokairua, diruz lagundutako jarduerarekin zuzeneko lotura duen telefonoa. Gastu horiek ezingo dute gainditu proiektuari guztira emandakoaren % 30.

Ez dira aintzat hartuko erakunde eskatzailearen funtzionamendu arruntetik eratorritako gastuak, esaterako: argiaren, gasaren kontsumoa, altzariak, ordenagailuak, etab.

– Soldatak eta dietak onartuko dira, baldin eta lagundutako programa garatzen –eta ez beste ezertan– diharduten pertsonenak badira. Dietak zehazteko garaian, kontuan hartuko da otsailaren 2ko 16/1993 Dekretua, Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa.

– Mantenu- eta garraio-gastuak onartuko dira, baldin eta zuzenean lotuta badaude programan jasotako jardueren garapenarekin.

– Diruz lagun daitezkeen gastutzat ezingo da jarri BEZ kengarriaren zenbatekoa, erakunde eskatzailea zerga horren deklarazioa egitera behartuta badago. Inbertsio-gastuak ere ez dira lagunduko diruz.

3.– Erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan, artikulua honen eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikulua arabera diruz lagundu ezin diren gastuak agertzen badira, Hautaketa Batzordeak ez ditu zenbatuko diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontua zehazterakoan; izan ere, aurrekontu hori hartuko da kontuan ebazpen-proposamenaren dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko.

4.– Dirulaguntzaren zenbatekoa, baremo hauen arabera kalkulatu da:

– Onartutako aurrekontuaren % 100eraino, esleipen-irizpideen arabera 91 eta 100 puntu artean lortzen duten programentzat.

– Onartutako aurrekontuaren % 90eraino, esleipen-irizpideen arabera 81 eta 90 puntu artean lortzen duten programentzat.

– Onartutako aurrekontuaren % 80eraino, esleipen-irizpideen arabera 71 eta 80 puntu artean lortzen duten programentzat.

– Onartutako aurrekontuaren % 70eraino, esleipen-irizpideen arabera 61 eta 70 puntu artean lortzen duten programentzat.

– Onartutako aurrekontuaren % 60eraino, esleipen-irizpideen arabera 51 eta 60 puntu artean lortzen duten programentzat.

– Onartutako aurrekontuaren % 50eraino, esleipen-irizpideen arabera 41 eta 50 puntu artean lortzen duten programentzat.

– Onartutako aurrekontuaren % 40eraino, esleipen-irizpideen arabera 31 eta 40 puntu artean lortzen duten programentzat.

Dirulaguntza jasotzeko, programek 31 puntu lortu behar dituzte, gutxienez.

5.– Laguntzak emateko, honela jardungo da:

a) Lehenik, 71 puntu edo gehiago lortu dituzten programei dagozkien dirulaguntzak esleituko dira. Deialdirako emandako guztizko zuzkiduraren hainbanaketa egingo da, baldin eta zuzkidura hori ez bada nahikoa aurrez kalkulatuak zenbatekoen arabera dirulaguntzak ordaintzeko.

b) 71 puntu edo gehiago lortu dituzten programei laguntzak eman ondoren deialdirako emandako guztizko zuzkidura agortu ez bada, gainerako saldoa erabiliko da 31 eta 70 puntu bitartean lortu dituzten programei laguntzak esleitzeko. Kasu horretan, a) letran aurreikusitako modu berean jardungo da.

6. artikulua.– Eskabideak formalizatzea eta aurkezteko epea, eta izapidetze elektronikoa.

1.– 2020ko urtarrilaren 31n amaituko da eskabideak aurkezteko epea, egun hori barne.

2.– Eskabideak baliabide elektronikoak erabiliz bakarrik aurkeztu beharko dira, eskabide-ereduaren arabera, behar bezala eta oso-osorik beteta, eta hurrengo artikuluan adierazitako dokumentazioa erantsita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezartzen denez. Hortaz, eskabideak euskadi.eus-en egoitza elektronikoa honetan aurkeztu beharko dira: <http://www.euskadi.eus/2020/elkarteak/web01-tramite/eu> edo [www.euskadi.eus/zerbitzuak/0092706](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0092706)

Erakunde bakoitzak eskabide bakar bat aurkez dezake, programa bat bakarrik bilduko duena (II. eranskina).

3.– Bide elektronikoz egindako eskabidearen ondorengo izapideak, helbide honetan egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Prozedura honetako izapide guztiak bitarteko telematiko bidez egin ahal izateko, erakunde eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak onartutako edozein egiaztagiri elektronikoa erabili ahal izango dute. Onartutako egiaztagiri elektronikoak esteka honen bidez kontsultatu ahal izango dira: <https://www.euskadi.eus/informazioa/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/y22-izapide2/eu>

5.– Erakunde eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz zein gaztelaniaz aurkez dezakete, nahi duten eran. Erakundeak hautatutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, Euskal Autonomiararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

7. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabideekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

1.– Orokorrean, eskatzaile guztiek aurkeztu beharrekoak:

1.1.– Eskabidea, erantzukizunpeko adierazpenak eta adostasunak dituela, honako hauek egiaztatzeko:

– Erakunde eskatzailea legez eratuta eta erregistratuta dagoela elkarrean edo fundazioen erregistroan.

– Elkarrean eskatzailearen edo federazio eskatzailea osatzen duten elkarrean estatutuetan emakume izatea eskatzen dela kide izateko betekizunen artean.

– Fundazio eskatzailearen xede eta jardute-eremu bakarra emakumeen sustapena dela.

– Erakunde eskatzaileak dagokion kide kopurua duela egun.

– Erakunde eskatzailea beste administrazio publiko batetik edo erakunde pribatuen batetik xede edo helburu bererako laguntzaren bat jasotzen ari den eta/edo halakorik eskatu duen eta onartu zaion, edo eskabidea artean ebatzi gabe dagoen.

– Erakunde eskatzailea BEZa ordaintzetik salbuetsita dagoela.

– Erakunde eskatzaileak ez duela dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion administrazio-zehapen edo zehapen penalik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere.

– Erakunde eskatzaileak ez duela administrazio-zehapen edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egiteagatik, eta bestetik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera ez zaiola debekurik jarri ebatzi honetan araututako laguntzak eskatzeko.

– Erakunde eskatzailea ez dagoela itzulketa-edo zehapen-prozeduraren baten baitan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo horren organo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzei dagokienez, artean prozedura izapidetzen ari dela.

– Erakunde eskatzaileak adierazten duela eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla, eta indarrean den deialdian laguntza hauen onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituela.

– Erakunde eskatzaileak egunean dituela indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, erregelamenduz zehazten den eran.

1.2.– Erakunde eskatzailearen datuak, I. eranskinaren arabera.

1.3.– Jardueren programa, 2020ko abenduaren 31 baino lehen egin beharrekoa. Erakunde bakoitzak ezin izango du programa bat baino gehiago aurkeztu. Horretarako, II. eranskina bete beharko da osorik, eta, han, jarduera bat baino gehiago jaso ahal izango da.

1.4.– Programa garatu behar duenak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko pres-takuntza eta/edo esperientzia duela egiaztatzen duen dokumentazioa, 10.1 artikuluan jasotako irizpideak egoki baloratzeko.

1.5.– Esleipen-irizpideak egiaztatzea ahalbidetzen duten gainerako agiri guztiak.

2.– Lehenagoko dirulaguntzetan dokumentazio hau aurkeztu ez dutenentzat, edo dokumentazioan aldaketak egiten direnerako:

2.1.– Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.

2.2.– Erakundearen estatutuen kopia bat.

3.– Edozein Administrazioan dauden agiriak ez dira berriz aurkeztu beharko. Horrelakoe-tan, agiriak noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren adierazi beharko da eskabidean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Era berean, ez da nahitaezkoa izango aurrez baimena ematea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak automatikoki egiazta dezan betetzen direla zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.3 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22.4 artikulua betez), eta egiazta ditzan, halaber, nortasun-datuak eta Datuen alta/Hirugarren interesdunari buruzko datuak.

4.– Administrazioak edozein unetan eskatuko die eskatzaileei programa baloratzeko beharrez-kotzat jotzen duen informazio eta dokumentazio oro, eta dokumentu originalak aurkezteko ere eskatuko die, benetakoak direla egiaztatzeko.

8. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Dirulaguntzarako eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo 7. artikuluan eskatutako agi-riren bat falta badute, Emakunde falta den agiria aurkezteko edo atzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio interesdunari, eta, horretarako, hamar eguneko epea emango dio, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera. Horrez gain, eskatutakoa egin ezean eskaera ezetsiko dela ohar-taraziko zaio interesdunari; ezesteko, aurretiaz, ebazpena emango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan eza-rritakoari jarraikiz.

9. artikulua.– Hautaketa- eta jarraipen-batzordea.

1.– Hautaketa- eta jarraipen-batzordea osatuko da aurkeztutako eskaerak aztertu eta eba-luatzeko eta emandako dirulaguntzen jarraipena egiteko. Deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, eta ondoren, esleipen-proposamen arrazoitua aurkeztuko dio



Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, laguntzak emateko ebazpena hartzeko; gero, justifikazioari dagokion jarraipena egingo du.

2.– Hautaketa- eta jarraipen-batzordeko kideak:

Batzordeburua: Zuriñe Elordi Romero andrea, idazkari nagusia.

Bokalak:

– Sonia González Ubierna andrea, Generoaren arloko Plangintza eta Ikerketaren arduraduna (programa eta prestakuntza arloa).

– Izaskun Garaigordobil Garmendia andrea, Administrazio eta Zerbitzuaren arloko arduraduna.

– Izaskun Fernández Otegi andrea, Aholkularitza Juridikoko Arloko arduraduna.

– María Teresa Santamaría Zaráin andrea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko teknikaria.

Idazkaria: Aholkularitza Juridikoaren arduraduna izango da idazkaria.

10. artikulua.– Dirulaguntzak esleitzeko irizpideak.

1.– Dirulaguntzak esleitzeko, hautaketa-batzordeak irizpide hauek hartuko ditu kontuan, bakoitzari emandako puntuen arabera:

a) Programaren kalitate teknikoa. 45 puntu, gehienez.

– Programaren azalpen argia: helburuak formulatzea, jarduerak deskribatzea –bereziki, lan-prozesua deskribatuko da, non jarduerak prozesutzat hartuko baitira, eta ez helburutzat–, prozesua ebaluatzeko adierazleen sistema...; eta programaren bideragarritasuna, aintzat hartuta egingo den lan-prozesuaren ezaugarriak, aurrekontua eta helburu horretarako ezarritako egutegia. 15 puntu, gehienez.

– Dirulaguntza eskatzen duen erakundearen baliabideak eta kudeaketa-ahalmena, metodologia (prozesuena, bereziki) eta ebaluazio egokiak. 15 puntu, gehienez.

– Balio-aldaketarako eta emakumeen ahaldunderako elementu berritzaileak (helburuei, jarduerari eta metodologiari dagokienez), eta/edo emaitza ona izan dutela egiaztatu duten esperientzia berritzaileak transmititzea. 5 puntu, gehienez.

– Proposamenaren kalitate osoa; kontuan hartuko da genero-ikuspegia sartzea eta indarrean dagoen berdintasun-planarekin bat etortzea. 10 puntu, gehienez.

b) Programaren gizarte-onura eta eragin biderkatzailea. 40 puntu, gehienez.

– Programak zenbat hartzaile dituen eta zer kolektibori zuzentzen zaion; kontuan hartuko da eskatzaileak zer lurralde-eremutan jarduten duen. 5 puntu, gehienez.

– Jardueraren lurraldez gaindiko eremua edo eskala, hots, hainbat lurralde historikotako pertsonen partaidetza erreala izatea jardueran eta/edo erkidego mailako lankidetzak-jarduerak egitea, premiak, jardunbide egokiak edo programaren helburuarentzako garrantzitsuak diren beste alderdi batzuk identifikatzeko. 5 puntu, gehienez.

– Beste elkarte batzuekin sarean lan egitea. 5 puntu, gehienez.

– Hedapen-bideak. 5 puntu, gehienez.



– Programan aniztasuna eta/edo mota guztietako diskriminazioak kontuan hartzeko aurreikus-ten diren neurriak. 10 puntu, gehienez.

– Esperientzia, aurkeztutako programan genero-ikuspegia integratzeko orduan, eta haren jarraitutasuna. 10 puntu, gehienez.

c) Irisgarritasunaren eta kontziliazioa ahalbidetzen duten elementuen sustapena. 10 puntu, gehienez.

– Zailtasun bereziak dituztenentzat irisgarritasuna ahalbidetzen duten elementuak. 5 puntu, gehienez.

– Bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa uztartzea ahalbidetzen duten elementuak. 5 puntu, gehienez.

d) Euskara eta gaztelania erabiltzea jardueraren publizitatean edo garapenean. 5 puntu, gehienez.

2.– Dirulaguntza jasotzeko, programek 31 puntu lortu behar dituzte, gutxienez.

11. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan ezarritako dirulaguntzak bateragarriak dira gainerako erakunde publiko edo pribatu guztiek helburu berarekin ematen dituztenekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada. Gainfinantzaketarik egonez gero, dirulaguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

12. artikulua.– Ebazpena.

1.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak emandako esleipen-ebazpenak amaitu egingo du prozesua, eta emandako eta ukatutako laguntzak adieraziko ditu. Ebazpena argitara emango da, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan, eta hor argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak. Halaber, banan-banan jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, publikotasun-ondorioak izan ditzan.

2.– Eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilekoa izango da –gehienez ere–, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Epe horretan ebazpenik jakinarazi ez bada, dirulaguntzarako eskaera ezetsi dela esan nahiko du, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ebazpen honetan araututako dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Horrela, dirulaguntza eman zaiela jakinarazi –hau da, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu– eta hamabost eguneko epean erakunde onuradunek dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badiote, dirulaguntza onartu egin dutela esan nahiko du.

b) «Datuen alta/Hirugarren interesduna» inprimakia bidaltzea, baldin eta lehenagoko dirulaguntzetan aurkeztu ez bada edo aldaketak izan baditu. Eranskin hori eskuratzeko: <http://www.emakunde.euskadi.eus/emakundeu/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa>

c) Dirulaguntza zertarako eman den, xede horretarako erabili behar dute, non eta 15. artikuluan ezarritakoa aplikatzen ez den, eta diruz lagunduko diren jarduerak Emakundek noiznahi egiaztatzea onartu beharko dute.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzen inguruan eskatutako informazioa eman behar diete.

e) Diruz lagundutako jardueretan edozein bariazio edo aldaketa izan bada edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortu badira, idatziz jakinarazi beharko dute, Erakundeko Zuzendaritzaren berariazko onespena beharrezkoa baita aldaketak egiteko.

f) Jasotako dirulaguntza zertan erabili den egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapenak edo kontrolak egiteko erabil baitaitezke.

g) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen marka agerraraztea, Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan adierazten den bezala (1999-10-26ko EHAA, 205. zk.), diruz lagundutako jardueren publizitate edo propaganda orotan, betiere posible bada publizitate horretan marka inprimatzea edo ikusteko moduan jartzea. Marka Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egoitzan eska daiteke. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen logotipoa beti jarri behar da diruz lagundutako programatik ateratzen den dokumentuan. Jardueraren edukiak bere gain hartzen dituen elkarte, federazio edo fundazioa dela adierazi behar da jardueraren publizitatean edo diruz lagundutako argitalpenetan.

h) Erakunde onuradunek, aurkezten dituzten programa, memoria eta gainerako testu idatzietan, idazkera egokitu beharko dute hizkera ez-sexistara, hala ezarrita baitago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.4 artikuluan. Orobat, bazter utzi beharko dituzte genero-estereotipoak, eta aktiboki sustatu emakumeen eta gizonen berdintasun erreal, egiten dituzten irudi, jakinarazpen, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan.

i) EAEko bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dute diruz lagundutako programaren eta jardueren publizitatea, hala xedatuta baitago Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 39.2 eta 38.2 artikuluetan.

14. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea.

1.– Dirulaguntza zatika ordainduko da: % 75 ordainduko da 2020ko aurrekontu-ekitaldiaren kargura, ez bazaio uko egin 13.a) artikuluan aipatutako epean, eta gainerakoa, % 25, 2021eko aurrekontu-ekitaldiaren kargura ordainduko da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egiaztatzen duenean diruz lagundutako jardueretan sortutako gastu guztiak justifikatu direla; bigarren zatia ordaintzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira 2021eko martxoaren 1era arteko epean (egun hori barne):

– Jasotako funts publikoak zertan erabili diren justifikatzeko memoria. Memoria horretan, egingadako jarduerak eta lortutako helburuak deskribatuko dira, programan aurreikusitako egutegia kontuan izanda. Era berean, sexuka banakatuta, zuzenean onuradun diren pertsonen kopurua jasoko da (elkartea, federazioa edo fundazioa osatzen dutenak edo bertan lan egiten dutenak),

baita zeharka onuradun direnena (programaren jarduerak gauzatzeko kontratatzen direnak edo jarduerak burutzeko kontratatzen den erakunde edo enpresa osatzen dutenak eta han lan egiten dutenak) eta azken onuradun direnena ere (azken finean programaren jardueraz baliatzen direnak). Era berean, eskabide-fasean alegatu ahal izan diren alderdi guztien justifikazioa ere jasoko da, ebazpen honen 10. artikuluan ezarritakoaren arabera baloratu ahal izateko, eta dokumentu grafikoak eta abar ere sartu ahal izango dira. (III. eranskina).

– Diruz lagundutako jardueren gastu eta diru-sarrera guztien balantze ekonomikoa, III. eranskineko ereduaren arabera, kontuan izanik diruz lagundu daitezkeen gastuek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 31. artikuluan jasotako betekizunak bete beharko dituztela.

– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundek diruz lagundutako gastua benetan egin dela egiaztatzen duten fakturak edo ordainagiriak. Fakturretako edo agirietako gastuaren data ezin da izan 2020ko abenduaren 31 baino geroagokoa.

– Diruz lagundutako jardueratik ateratako produktua, halakorik balego.

– Soil-soilik lagundutako programa garatzen –eta ez beste ezertan– diharduten pertsonen soldata justifikatzeko agiriak.

– Diruz lagundutako jardueren publizitatean Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen lankidetzaz agertu dela eta elkarteek edo federazioek jarduerak bere gain hartu dituztela egiaztatzen duten egiaztagirak.

2.– Programaren behin betiko kostu osoa gutxitzen bada, dirulaguntza kalkulatzeko kontuan hartu zen kostuaren aldean, edo gastua egiaztatzeko agirien bidez (fakturak, ordainagiriak, etab.) justifikatzen den zenbatekoa emandako laguntza baino txikiagoa bada, dagokion zati proportzionala kenduko zaio dirulaguntzaren zenbatekoari.

15. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzaren bat aldatzen bada, Emakundeko Zuzendaritzari jakinarazi behar zaio. Dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu egin daiteke, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu badira –betiere, dirulaguntzaren helburua bete bada– eta bestelako erakunde publiko edo pribatu batek, aldi berean, laguntzarik edo dirulaguntzarik eman badu.

2.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak, aurreko artikuluan aipatutako agiriak edo artikulua honetako aurreko apartatuan aipatutakoak jaso, eta agiriak aztertu eta ebaluatu ondoren, emandako dirulaguntza aldatu eta/edo likidatuko du, administrazio-bideari amaiera emango dion ebazpen baten bidez; horretaz gainera, dirulaguntzen zenbatekoak egokituko ditu –hala behar denean–, itzuli beharreko zenbatekoa zehaztuko du –hala badagokio–, eta 15 eguneko epea emango du dirua itzultzeko.

16. artikulua.– Ez-betetzeak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako ez-betetzeren bat izan dela egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera, alde batera utzi gabe dagozkion gainerako ekintzak.

#### 17. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatuarekin bat etorri (698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura emandako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautu eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta betebeharrak ezartzen dituen), ezarritako baldintzak eta/edo betekizunak betetzen ez direnean, hau izango da emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak prozeduraren hasiera eta prozedura funtsatzeko arrazoiak jakinaraziko dizkio erakunde interesdunari, eta 15 egun balioduneko epea emango dio alegazioak aurkezteko.

b) Alegazioak jaso ondoren edo alegaziorik egin gabe epea amaitu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak amaitutzat joko du prozedura, ebazpen baten bidez. Ebazpen horrek administrazio-bidea amaituko du.

Ebazpenean baldintzak bete ez direla adierazten bada, galdutzat joko da dirulaguntza jasotzeko eskubidea, eta, beharrezkoa bada, jasotako zenbatekoak eta aplikatzekoak diren legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzultzeko aginduko da. Dirua hil biko epean itzuli beharko da, jakinarazpena egiten den egunetik hasita. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

c) Borondatezko aldi itzulketarik egiten ez bada, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunari jakinaraziko zaio, premiamendu-bideari ekin diezaion, aplikatzeko den legezko araudian xedatutakoari jarraituz.

d) Aplikatzekoak diren arauak ez betetzeagatik dirulaguntzak itzultzeari buruz artikuluko honetan araututako prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilekoa izango da, gehienez ere.

#### 18. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Deialdi honetan parte hartzen duten lagunen datu pertsonalak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen datuen tratamendu batean –Bekak, laguntzak eta dirulaguntzak– sartuko dira. Tratamendu hori Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan araututakora eta Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakora lotuta dago.

Erakundeak sustatutako laguntzak kudeatzeko baino ez dira erabiliko datu horiek, botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko. Hala nahi dutenek, legeak aurreikusten dituen eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko, aurka egiteko, zein Erregelamenduan aurreikusitako eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Datuak babestekoari buruzko informazioa: [www.euskadi.eus/datuak-babesteko](http://www.euskadi.eus/datuak-babesteko)

Datu pertsonalak ez dira hirugarren herrialdeetara bidaliko, ezta hirugarren pertsonari emango ere, lege-eginbeharra betetzeko ez bada.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek berraztertze errekurtsua aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezakete zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hileko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 4a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,  
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.